

Roberto Etxebarria Goikoetxea (*Gatika, 08/08/1969*)

Musikaria, sortzailea eta irakaslea.

Generoa: musika tradizionala.

Musika-tresna: Trikitixa (soinu txikia)

1979an hasi zen soinu tekladuna jotzen, eta soinu horrekin lauzpabost urtez aritu zen. 1982ko urrian hasi zen soinu txikiarekin. Garai hartan Maruri-Jataben bizi zen Roberto Etxebarria, eta etxetik hurbil bizi zuen Bizkaiko trikitilarien erreferentea: Rufino Arrola. Haren etxera eraman zuten gurasoek ikastera. Hala, bi urte inguru eman zuen bi soinuak jotzen, soinu tekladuna eta soinu txikia.

Rufino Arrolarekin ikasten zebilela, haren etxean bertan ezagutu zituen Eukene Arrola (Rufinoren iloba) eta Imanol Arrola (Rufinoren anaia baten iloba), eta aukera izan zuen, ikasten hasi eta sei hilabetera, eurekin plazarik plaza jotzen hasteko. Eukene Arrolarekin tarte luzeagoan ibili zen, Imanolek bestelako bide bati ekin ziolako, betiere trikitixaren inguruan. Guztiek ere taldea osatzen zuten Kepa Arrizabalaga eta Eusebio Ruedarekin.

Garai hura funtsezkoa izan zen Roberto Etxebarriaren ibilbidean, orduan ezagutu zituen-eta Bizkaiko trikitixaren garaiko trikitilari erreferenteak: Fasio, Zolloko etxebarratarrak, Txilibrin, Juanita, Felisa eta Eduardo Zornotzako trikitilariak, Maurizia Aldeiturriaga...

1985an Txetxu Urrutiarekin osatu zuen bikotea, eta lauzpabost urtez aritu ziren plazarik plaza. Sasoi hartan Kepa Junkerarengana jo zuen Roberto Etxebarriak, eta harekin batera trikiti jotzen sakontzen eta erreperitorio berria lantzen eman zituen bi ikasturte. Bizkaiko trikitixa zaharretik molde berrietarako bidaia izan zen hura.

1987an aurkeztu zen Roberto Etxebarria lehenbiziko aldiz txapelketa batera: Leioan izan zen, eta pieza sortu berriak aurkeztu zituen. Jotzen hasi eta 5 urtera hasi zen, beraz, bere piezak ematen, eta gaur ere horretan dihardu. 1987ko txapelketa hartan Txetxu Urrutiak lagundu zuen panderoarekin. Orduko hartan agertu ziren elkarrekin azkeneko aldiz Bizkaiko trikitilari zaharrak eta uzta berriko gazteak txapelketa batean. Izan ere, taulan izan ziren, alde batetik, Basilio Undagoitia, Maurizia Aldeiturriaga, Luis Etxebarria eta Rufino Arrola, Bizkaiko trikitixaren garai bat markatu zuten trikitilariak; eta, beste alde batetik, Kepa Junkera, Koldo Etxebarria eta Roberto Etxebarria, uneko garai haren eta geroaren zubiak, nolabait esateko. Gerora beste hainbat txapelketa etorri ziren, eta Roberto Etxebarriaren ezaugarri behinenetako bat izan da hainbat eta hainbat txapelketatan pieza berriak erabili izana.

1988an hasi zen irakasle, inguruko ezagunen eskariari erantzunez. Etxean ematen zituen trikitixa-eskolak. Gerora hasi zen etxetik kanpoko eskolekin: Erromoko Kultur Etxean, Gasteizko Trikitixa Eskolan, Itxartu Dantza Taldean, Mungiako Musika Eskolan eta beste hainbat ikastetxe eta ikastolatan aritu izan da. 2002az geroztik, Bilboko BilbaoMusika Udal Musika Eskolan dihardu irakasle.

1989an Zeanuriko Trikitilari Gazteen Txapelketara aurkeztu zen, eta ordukoan ere bere sormen-lanak plazaratu zituen. Kepa Arrizabalaga Urrutia, semea, izan zuen lagun. 1991n Trikiti Pieza Berrien I. Txapelketa antolatu zuen EITBk. "Bihotzetik bihotzari" pieza aurkeztu zuen Roberto Etxebarriak. Doinua berea da, eta hitzak Jon Enbeitarenak. Plazako saioetatik ezagutzen zuten elkar, eta bertsolariak musikariaren eskariz egingo dako lana izan zen. Zuzenekoan Kepa Arrizabalagarekin jo zuen Roberto Etxebarriak, eta garaile izan ziren. Inflexio-puntu bat izan zen hura: saioak ugaritu egin zitzaizkion bikoteari eta trikitilari zein sortzaile moduan bere lekutxoan egin zuen Roberto Etxebarriak, betiere Kepa Arrizabalaga bidelagun. 1992an ere txapelketa beraren 2. edizioan garaile izan zen bikotea, ordukoan ere Jon Enbeitak hitzez jantzitako "Mutil zahar" porrusaldarekin.

1993an etorri zen diskoa: Roberto Etxebarriak sortutako piezen bilduma, Bihotzetik bihotzari izenburupean. Kepa Arrizabalagarekin grabatu zuen, eta Ainara Arrizabalagak ere parte hartu zuen grabaketan.

Paperetik Plazara proiektuko kide ere izan zen 1995ean; Jon Enbeitak gidatutako taldea izan zen hura, bertsoa, koplak eta trikitixa uztartzen zituenen. Beste musikari batzuekin batera aritu ziren talde hartan bai Roberto Etxebarria, bai Kepa Arrizabalaga.

Trikitixa-molde tradizionalari eutsi eta aire berriz jantzitako piezak konposatu izan ditu Roberto Etxebarriak, trikitixarakoak betiere. Bada, saioetan, pieza horiek eta hasierako garaietan ikasitakoak tartekatzen izan ditu. Teknikoki aurrera eginez joan da urterik urte, estiloa finduta. Baina, era berean, trikitixa jotzeko molde tradizionalaren ukitua mantenduta beti. Horixe da, beharbada, Roberto Etxebarriaren estiloa definitu eta berezi egiten duena.

100 saiotik gora egin izan ditu urtean Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga bikoteak, harik eta 2006an Kepa Arrizabalagak erretiroa hartu zuen arte. Euskal Herrian zein bertatik kanpo egin zituzten saioak. Nazioarteko saioetan nabarmentzekoak dira, adibidez, Estatu Batuetako Euskal Jailetan izan zirenekoak (1992, 1996 eta 2000) edota 1993an Italian izan zirenekoa... Gainerakoan, Segoviako folk-jaialdian, Poborina folk-festibalean, 1992ko Sevillako Expo-an, Terueleko 2004ko eta 2007ko jaialdietan... izan dira, besteren artean.

Kepa Arrizabalagak erretiroa hartuta, Idoia Markaida izan du pandero-lagun hainbat urtez eta, geroago, Miren Etxebarria alaba. Orain alaba du lagun saioetan.

Ageri denez, plazako eta kale-giroko saioetan etenik barik ibili da Roberto Etxebarria 38 urteko ibilbidean. Orain ere ehun saiotik gora egiten ditu urtean: kalerik kalekoak, omenaldiak, jota-txapelketak, zuzenekoak, grabaketetako kolaborazioak, erromeriak...

Bada, hain zuzen ere, erromeria-giro horrekin lotuta daude Erreskan eta Lorratz. Erreskan izeneko formazioaren sortzaile eta bultzatzaile izan zen Roberto Etxebarria; dantzari leku egiten dion proiektua da Erreskan, herri-musika ardatz duena eta plazako entzuleak dantzan jartzea helburu duena. Ildo berean, erromeria-formatuko taldea da Lorratz. Idoia Markaida aritzen da panderoan, Ane Etxebarria zeharkako txirulan eta Miren Etxebarria biolinean. Lorratz ere dantzara zuzendutako saioak egiten dituen taldea da: ahalegin bat, plazara hurbiltzen direnek dantza-jauziak, dantza-solteak zein lotuak egin dezaten.

2020ko abenduan etorri zen Hamaikatu koplak... pandero baten konture! izeneko diskoa. Miren Etxebarria alaba du Robertok lagun, eta koplak dira proiektuaren ardatza. Hain zuzen ere, bere musikari-ibilbidearekin bat dator diskoa: beti izan ditu koplak ardatz Roberto Etxebarriak. Bada, diskoa horren isla da. Llegado 1993, Roberto Etxebarria publicó su primer disco, la colección de piezas de creación propia Bihotzetik bihotzari. El trabajo fue grabado junto a Kepa Arrizabalaga y participó, asimismo, Ainara Arrizabalaga. A mediados de la década de los 90, Roberto formó parte en el proyecto Paperetik Plazara (Del papel a la plaza): un grupo guiado por Jon Enbeita en el que se unieron el verso, la copla y la trikitixa, que contó con la participación de Roberto Etxebarria y Kepa Arrizabalaga.